

EUSKAL HERRIKO JUDUEZ

Euskal Herriko erlijiotasunaren historia orokorra idazteko dugu oraindik gure artean, alde batetik Historiaurretik hasi eta gure egunak arte iritsiko dena, eta bestetik, erlijiotasun mota guztiak besarkatuko dituen. Hala ere, saioen bat edo beste egin izan da hutsune orokor hori betetzeko.

XX. mendean ahalegin handia egin zen gure lehen erlijiotasunaren albiste etnografiko pagano-kristau herritarrak biltzen, eta baliozko urratsa izan zen gure iragan hura aintzakotzat hartzeko. Historiaurre hartatik geratu zaiguna ezagutzeko baliyo izan digute J. M. Barandiaranen eta berorren Eskolako ikerlanek, oraindik ere osatuz doazenek (*Etniker*).

Lehen erlijiotasun haren ondoren bizi izan ditugun hiru Erlijio monoteista erakundetuek (*Eliza* kristauak, *Sinagoga* judutarrak edo *Umma* islamdarrak) ez dute zori bera izan beren osotasunean; adibidez, Euskal Herri osoko Diozesi eta Parrokiena ikertzeko; Ordena Erlijiosoen sarrera eta garapena agirian jartzeko; Kofradia herritar erakundetuak ikertzeko. Euskal erlijiotasunak badu hor hutsune bat, ezjakintasun nabaria. Orrialde hauetan judutasuna nahi dut gogorarazi, izan ere azken hamarkadetako iker-ekarpenek laguntzen baitute horretarako. Nafarroako kasuan, behintzat, esan daiteke bolaran dagoela Euskal Herriko judutasunaren iragana, eta horrekin batera gogoratuta utzi nahi ditugu juduen Diasporak ere.

Juduak Euskal Herrian

Herri hebrearrak Palestina bere jatorrizko sorterritik kanpo izandako erbestealdietan, sarritan izan ditu pasadizoko bizialdiak, eta ez gutxitan Diaspora iraunkor eta oso iraunkorrek ere: Egipton behin eta berriz, Babilonian, Erroman, Europako Mendebal-Ekialde kristauetan, Afrikako Magrebean, Hego Amerikako Argentinan nahiz Ipar Ameriketean. Judutasunaren hedapenean, tartean izan dira bi Euskal Hego-Iparraldeak, eta biak aipatuko ditut, juduen historia hain ezberdinak eta hain elkarren osagarriak izan dituztelako.

Gurera iritsi aurretik, eskarmentu handiko ibilerak izan zituen judutasunak. Gogora dezadan. Oinarrizko datu iraunkor bat dago Israel herriaz hitz egitean lehenik ezinbestean aipatuta utzi behar dena: Israel herria Yaveh-ren nazio erlijioso bilakatu zen Moises-en gidaritza politiko eta erlijiosoan (K. a. 1200). Geroztik, beste ezerk baino gehiago, gertakari haren memoriak eta talde-bizipenak segurtatu zuten (eta partez berderen segurtatzen dute) judutasunaren segida iraunkorra.

Egia da gaurko euskal historiografiak zailtasunak dituela iraganean izandako juduen egunerokotasun sinestun bizkorra artxiboetako agirietan atzemateko, batez ere euskal juduen harreman sozial eta ekonomikoaz mintzatzen baita historiografia, eta haien ez haien sinesgaiez, otoitzaz edo urteroko jaiospakizun erlijiosoez. Hala ere, XVIII. mendetik honako sekulartasunaren aurretik, euskal juduak ere Moisesen Tora-ren arabera bizitzen ahalegindu ziren; hori zen legea, bere 613 arauekin¹.

Euskal Hegoaldeko herri judua erdi-arotarra da, eta Erdi Arokoa bakarrik, esan daiteke; lehenagokorik ez zen egon, itxura guztiz; gerokoek bortxatuta bataiatu behar izan zuten ala Nafarroa eta Gaztelako Erreinetatik kanpora joan (1492,

¹ <http://www.mscperu.org/biblia/TradicionJudia/613mandatos.htm>.

1498), *marrano* edo “kristau berrien” arazo sozio-erlijiosoa sortzen zela.

Baina Euskal Herrian noizdanik zeuden gurean lehen juduak? XI. mendetik aurrera, gero eta sarriago ageri zaizkigu artxiboetan judu euskal herritarren albisteak, beharbada judu-
auzo autonomo jakinetan (*aljamak*), beraien estatus sozio-politikoa erakusten zutela (auzoetan, autogobernuarekin), erlijiotasuna agerian zela (Sinagoga eta hilerri propioekin), osasun-zerbitzuak eskainiz (ospitale edo medikuekin), irakas-kuntzaz arduratuta (maila ezberdinetako Eskolak: *beder, yes-biva*), oro har Sinagogako Errabinoaren maisugoa gidari espiritual zutela, etab.

Erdi Aro hartako unerik arrakastatsuen, XII-XIII. mendeetan bizi izan zuten Nafarroako juduek, ondoren XIV-XIV.etan beheraldia etorri zen: 1328-1329.etan Lizarra eta beste hainbat herritako herritar juduen aurkako eraso eta hilketek oso zaurituta eta gutxitua utzi zuten juduen Komunitate nafarra, ehunka hildako tartean zirela. Agintariak, gauzak zuzendu nahita ere, ez zuten lortu justizia egiterik, eta hildakoen ondasunak Koroaren eskuetara joan ziren. Herritar kristauen pentsamoldea jokabide eta erabaki okerragoetarako bidea urratzen hasia zen.

Euskal Herri osoak ez du izan Nafarroako presentzia haren tamainako besterik, ez Lurralde osoan, ez Aro ezberdinetan. Nafarroa da juduen historia aberatsena izan duena, et ongi ikertuena ere bada; baina, bere orokortasunean, Erdi Aroko ibilera da hori, Hegoaldean azken bukaera politiko zehatza 1492 eta 1498.etakoko erbesteratzeetan izan zuena; bukaera, diot, nahiz eta ez den ahaztu behar gerora ere judu bataiatu berriek sasia bizi behar izan zutela, betiere herritar “odol garbikoen” susmopean (Domínguez Ortiz 1971: 79: 105).

Gaurko euskal judu eta ikertzaileen lanetan, 1492ko deskalabruaren oroitzapena ez da galdu inondik ere; orduko sefardi

sakabanatuen ondokoek, Holokaustoaren (*Xoab*, 1941-1945) aurreko gertaera ankerrena bezala gogoratu izan dute. Orain, azken hamarkada gutxitan, berreskuratuz goaz XV. mende zital hartako bilakaera politikoaren Euskal Herriko aurpegi iluna, batetik Gaztelatik ezarria, eta aldi berean Nafarroan ehundu eta kudeatua, eta Euskal Foruetara bere ideologiarekin heldu zena. Gaurko historiografia nafarra ari da horren berri ematen, Carrasco edo Cantera Montenegro ikertzaileen lanetan, esate baterako.

Baina Euskal Herriak beti izan du bere Iparraldea (Nafarroa Beherea salbu), Gaztelako eta Nafarroako politika antisemitek harrapatu ezin izan zutena. Horri esker eta Hegoaldeko juduek hala behar izan zutelako, Baiona eta ondoko Espiritu Saindu auzoa gertatu ziren abagunerik gaiztoenean babesleku erosoena. Euskal Iparraldeko juduek historialari onak ere izan dituzte: H. Léon batik bat, edo Bénard-Oukhémadou. Aro Modernoko euskal juduen historia ia osorik Pirinioetatik gora bizi izan da (Baiona eta Miarritzeko Sinagogetatik gidatua).

Euskal Hegoaldeko juduen estatus politikoa

Erdi Aroko Kristandadean aintzakotzat hartuak ziren komunitate juduak, arrazoi ezberdin eta kontrajarriengatik ere: jatorriz kristauen erro berekoak zirelako, eta erlijiotasunean lehia-kide ere bai, Jainko bera zutelako (*Yaveh*), sinesgai bertsuak zituztelako, elkar kutsa zezaketelako, edo gizarteko erlijiotasunaren gidari-boterea norberak beretzat gorde nahi zuelako.

Herrialde musulmanetan, *dimmi* deituekin (kristau eta juduekin) gertatu ohi zenaren antzera, Erreinu kristauetan juduei erregimen sozio-politiko autonomoa ezagutu ohi zitzaizen: erlijioa eta lege propioak errespetatzen zitzaizkien, aparteko erregimen sozio-politiko eta erlijiosoa begiramenez hartu, betiere bestelako eta bigarren mailako menpekotasuna

edo Erregerekiko dependentzia berezia zituztela. Juduak zuzenean Erregerenak ziren.

Berez ez zegoen jazarpenik; baina fiskalitate astunagoa zuten. Erreinuko Ogasunaren gorabeherak sarritan zuten zerikusirik ezarri edo eskatu nahi zitzaizkien zerga eta maileguekin. Horretan trataera berezia zuten. Hain zuzen, Elizak, Koroak bezala, juduen etorrera eta ondoriozko ekarmena (kultura, ekonomia, zerbitzuak eta erlijiotasuna bera ere) Erreinuaren aberasgarritzat hauteman zituzten luzaroan.

Hasteko, Iruñeko Gotzainek XI. mendean (1063ko urte aurretik) komenigarri ikusi zuten bertako katedralaren inguruetan judu-auzo bati leku egitea (Nafarrerria auzoan), Santiago Bideko zerbitzuak indartzeko balio baitzuten. Bertatik zetozen frankoekin batera, juduak Nafarroako Mendialdea beren ekarpen sozial, ekonomiko eta erlijioso bidez Erreinu gaztea indartzera zetozela. Ez da ahaztu behar, gainera, orduko Iruñea Gotzainarena zela.

Juduak Erregerenak zirenez, Erregea zen guztien babesle naturala, harreman horrek zituen arrisku eta segurtasun-abantailekin. Errege jaunak pribilegioak eman ahal ziezazkiekeen juduei, eta hurrengo batean beharbada haiekin diru-ordainak negoziatu. Normalean, juduek eta Erregek elkarren premia zuten erreinua fiskalitate eta harmonia egokiz eramateko.

Hori dena, ordea, ez da irudikatu behar zerbait zurrun eta ukiezina bezala; aitzitik, guztien interes eta premiek aldakor bihurtu ohi zuten alde zuzen hitzartuta zegoena. Historia dinamikoa eta interesatua zen, guztientzat ere. Lizarrako judu-barrutia eta Tuterakoa izan ziren 1266an Erret Ogasunari ekarpenik handienak egindako judu-barrutiak.

Erreinuko lurraldea bost judu-*aljamatan* banaturik zegoen: Tutera, Lizarra, Biana, Funesko bailara eta Iruñea-Elo. *Aljama* terminoak lehenik “judu-auzoa” esan nahi zuen, baina baita judu barruti bat ere. Barruti horiek berdin balio zuten Errei-

nuko barruti juduen mugak finkatzeko, bai haietako Koroaren harreman-eskumena aditzera emateko, bai judu barruti eta auzoetan barneko juduen erregimen sozio-politikoa judutasunaren arabera eratzeke.

Aljama judutar hauen barne-gobernua juduen eskumenean zegoen eta bertako gobernu-kodea Tora-ren arabera zen, kanpoko ez-juduekiko arazoak bideratzeko jurisdikzio arruntari leku egiten zitzaion bitartean. Erreinuko une jakin batzuetan izan ezik (eraso eta *pogrom* aldietan, alegia) garbi egon zen juduek beren usadio eta erregimenaren arabera auzoak eta trataera pertsonal juridikoak zituztela, eta berorien arabera bizitzeko eskubidea aitortzen zitzaiela, XII-XIII. mendeetan. Krisia gero etorri zen, XIV-XV. mendeetan, Nafarroatik juduak kanporatzea erabakitzeraino heldu zenean.

Koroaren, Elizaren, gainerako klase sozialen, herritarren mentalitate eta jarreraren gogo eta interesek jasanezina bihurtu zuten hainbat hamarkadatan finkatutako juduen Nafarroa nahiz Gaztelako juduen aitortpen sozial hitzartua mantentzea. Sinemen ezberdineko Komunitate etno-erlijiosoen artekoa hobetuz joan zen XII-XIII. mendeetan; baina 1277tik aurrera okerrera egin zuen. Data larri adierazgarria da 1328koa Lizarran eta bere *aljama*-barrutian juduek jasan behar izan zituzten hilketengatik: Gares, Lerin, Andosilla, Azagra, San Adrian, Funes.

Ezbehar horiek gertatu aurretik, Iruñeko Gotzainek XI. mendean (1063ko urte aurretik) komenigarri ikusi zuten bertako katedralaren inguruetan judu-auzo bati leku egitea (Nafarrerria auzoan), Iruñean Santiago Bideko zerbitzuak indartzeko balio baitzuten. Bertatik zetozen frankoekin batera, juduak Nafarroako Mendialdea beren ekarpen sozial, ekonomiko eta erlijiosoen bidez Erreinu gaztea indartzera zetozela. Ez da ahaztu behar, gainera, orduko Iruñea Gotzainarena zela.

Lehen pauso haiek hurrengo mendean areago indartu ziren, eta 1266ko datuek diotenez, 150en bat familia judutar zeuden Iruñeko judu-auzoan. Zoritxarrez, beraiei ez zegokien gerra batek, Nafarrerria ez ezik bertako judu-auzoa ere desegin zuen (1276). Hala ere, judu-komunitateak izan zuen ostera ere Sinagoga eraikitzeke gogo eta indarririk (1344), eta agian ordukoa izan zen, 1433an “Sinagoga Nagusia” zeritzan auzokoa.

Israel herriaren erlijiotasuna

Judu-herria tradizio, lege eta usadioz izan da herri erlijioso, eta horrela iraun du judutasunaren Erreforma sekulartuak XVIII. mendetik hona espiritualitate sekulartuak indarra hartu duen arte. Herriaren definizio moiestarrean egon da hori, *Tora*-tik hasita. Hauxe da, hain zuzen, Israelgo Estatu laikoak bere baitan duen funtsezko arazo politiko-erlijioso nagusia, hauteskunde demokratikoetatik sor daitezkeen emaitzen ondoriozko Gobernuak moldatu behar izan direnean. Labur esateko: Israelek Yaveh sinetsi du, eta Haren herrizat du bere burua, Haren Tenplua izan zuen Jerusalem-en eta sendiaren Etxean eta Tenpluan eta Sinagogan eta nonahi otoitz egin zion eta egiten dio. Espiritualtasun horretan bizi izan ziren Euskal Herriko juduak ere.

Baina badago hemen arazo historiografiko bat ere: Erdi Arokoetan eta ondoko mendeetan, gaurko euskal historialariek ez dute apenas aurkitzen artxiboetan judu euskal herritarren erlijiotasunaren arrasto eta azalpen zehatzik: otoitz liturgikoak, berorietarako errituala, jatorduetako nahiz goiziluntzetako otoitzak edo urteroko jai-egutegiko jai-ospakizunetakoak ezkutaturik daude artxiboetan.

Zaila da jakitea espiritualtasun juduak zein eta nolako adierazpide izan zuen gure Erdi Aroan, judutasunaren Euskal Herrikan kanpoko tradizio ezagunetatik ez bada, eta batez ere tradizio sefarditik izan ezik. Inondik ere, Euskal Iparraldean Erdi

Arotik honakoari begiratzen diogula (Baiona, Miarritze) joan beharko da bilaketa horretan.

Horra, bada, nola lausotzen zaigun euskal juduen erlijiosunaren barne-esperientzia hori. Dagoeneko gure historialariek dezente jakin dezakete dendari juduek zer saltzen zuten, diru-maileguak nola eta nori egiten zizkioten, zenbateko interesak eskatzen zituzten, salgaiak nondik nora ekartzen zituzten, askotan Santiago Bidetik etorri ohi zirela, baina ez erromes gisara. Talmud-a eta antzeko liburu erlijiosoak izan zituztela, seguru; baina kasik seguru Yeuda Hallevi (1075-1141) idazle tuterarraren ospe handiko *Kuzari* obra apologetikoa ez zutela irakurri berehala behintzat (judutasunaren defentsa estimatua zen liburu hori, baina jatorriz arabieraz idatzia eta irabazi zuen estimuagatik hebreerara laster itzulia: 1167).

Dena den, badakigu judutasuna “Liburu-Erlijioa” dela, eta *Tora*-tik ekinda ekoizpen literario zabala izan duela. Euskal juduak ere ez ziren geratu prediku eta irakurgai erlijiosoetatik entzun eta irakurri gabe. Tora-ko testuak hemengo sinestunen Sinagoga eta bizitzan presente zeuden, noski, eta horren lekuko bat da Nafarroako Erriberriko (Olite) Tora-ren eskuizkribua.

Judu-auzoetako bizilagun-kopuruak

Euskal Herriko juduen tokian tokiko eta urtean urteko zenbatekoak ezagutzea ez da posible, nahiz eta baditugun noizbehinkako, urte solteetako kopuru eta zifrak. Hala ere, datuen lagin esanahitsuren bat edo beste ekar daiteke hona.

Jduek Nafarroan bi eskualde nagusi izan zituzten; bata Erribera aldean, Tuteran buru zela, eta bestea Mendialdeko Santiago Bidearen arrastoan eta alboetan, Zangozan hasi eta Bianaraino. Lizarran 150en bat familia judutar zeuden 1250 inguruan, hau da, hiriko bizilagun guztietako %10 ziren juduak. 1366an, Gares-en 120 sendi ziren juduak, eta bizilagun guztie-

tako %10 hor nonbait zirela esan daiteke hemen ere. Urte be-rean, Elo-ko 85 su guztietarik %14 gertatzen dira juduak. Be-randuagokoa da Zangozako gure albistea (1350 ingurukoa, hain zuzen): 450 familietatik 40 dira juduenak (%11).

1266ko kontuetan, 150 sendi judu ageri dira Iruñean; baina ez da ahaztu behar Nafarreriako hondamendiarekin batera desagertu zela bertako judu-auzoa ere (1276), mende-erdi ba-ten buruan kostata berregin zena (48 sendi berri ere tartean zirela). Bianako judu-barrutian biztanleetako juduena %13 kalkulatu izan da (1379-1413), Urantziakoa %14 (1350) eta %13,5 Guardian (1366). Batutako judu-talde hauek biztanle-gune nagusi bat izan ohi zuten, barrutiko hiriburuan, eta hainbat lagun barreiatu inguruetako herrixketan, gainerako bi-zilagun kristauei ere beren zerbitzuak eskainiz (diru-maile-guak, zerga-bilketa, artisau-lanak eta abar).

Euskal Hegoaldeko Hiru Probintzietako talde judutar han-diena Gasteizen egon zen, bere garaian 120/150 sendi zituela, bertako biztanle guztietarik %8 edo judu zirela, diotenez. Ara-ban ez zen, noski, Gasteiz judu-auzoa izan zuen bakarra; be-harbada hiria sortzetik bertatik heldu ziren juduak batetik edo bestetik (1181), bide oneko bideak baitzituen Gasteizek, eta 1256an, Alfontso Jakitunak zabalgunek berri bati leku egitean, juduek moldatu eta ezagutua zuten beren izeneko kalea.

Arabako Probintziako 11 hiribildu eta 16 lekunetan bizi izan ziren juduak Erdi Aroan; aipagarrienak Agurain, Bastida, Guardia, Bernedo, Gebara, Mendoza, Kanpezu, Añana eta abar. Gipuzkoan Arrasate eta Segura, biak ere Mesetatik kos-talderako bideetan (Arlaban, San Adrian), eta azkenik Biz-kaian, Balmaseda, Urduña eta Bilbo, hauek ere bakoitza bere aldetik Kantauri Itsasotik goi-lautadarakoan.

Balmasedakoaz arduratu den historialaririk badugu (M. de los Heros, 1978; I. Acasuso, 1991); kasu honetan 100en bat ju-du izan zitezkeela esan izan da, eta nolana ere Bizkaiko tal-

de judutar handiena zela. Urduña ere izendatu izan da juduen bizilekutzat, baina iragan gutxi ikertu batean lausotu zaigu historia hori.

Erdi Arokoez aipatu dugun hau dena, 1492-1498. urteetan moztu zen, ongi dakigunez; baina ez euskal judu guztien kaltetan, Euskal Iparraldea judutasunean irabazten irten baitzen Hegoaldeko juduak Iparraldera pasatu ziren hartan.

Euskal Iparraldeko juduak

Iparraldeko juduen Historia borobilduena H. Léon-ena dugu gaur egun ere, A. Zink eta B. Leroy-ren hitzaurre-sarrerekin hornitua (Paris, [1883], 2016): *Histoire des Juifs de Bayonne*.

Liburuaren izenburua gorabehera, Baionakoaz ari den arren honek kapitulu osoa du Espainia eta Portugaleko judu sefardiez eta beraien erbesteratzeez, preseski Gasteizko hilerri juduaz ere ari dela; Baiona ondoko Espiritu Saindu auzoan “portuges” gisa izendatzen zituztenean ere erro hurbilagoak non zituzten aditzera emateko, “Le cimetière de Vitoria” dio Baionakoaz ari den liburu horretako atalburu batek.

Gaztela (1492), Portugal (1496) eta Nafarroatik (1498) erbesteratzeek eman zioten Euskal Iparraldeko juduen komunitateari hasiera ezaguna Aro Moderno osorako eta ondoren, eta beronek bere baitan zituen indarrei esker eta, nolana ere, garaian garaiko Frantziako Koroak izan zitzakeen judu-politikaren aterpe gutxi-asko abegikorrean moldatu zen Iparraldeko juduena Baiona eta inguruetan. Erbesteratze hauetan bi erabaki larri egon ohi ziren juduengan: Erreinitik juduak kanporatzeko Koroaren agindua (bataiatu ala erbesteratu!) eta norberaren erabakia (erlijioz aldatu ala ez, edota itxurazko konbertsioari heldu!).

Ez da ahaztu behar, gainera, Baiona ondoko Espiritu Sainduko talde juduak hurbileko besterik ere izan zuela bere barrutian, Nafarroa Behereko Bidaxune eta Bastidan, beren Sinagoga eta hilerriekin. Bigarren mailako otoitz-lekuak ere egin ziren barruti horietan (adibidez, 1755ean bazeuden Baionako barrutian 13 *esnoga* edo Sinagoga-ordeko edo). Irakaskuntza eta zerbitzu sozialetarako ekinbideak ez ziren falta izan: *Soci t  Protectice de la Jeunesse Isra lite* (1850) nahiz ikastaro eta bibliotekarekin *Association des  tudes Juives* bezalakoak (1894).

Baina susperraldi horren aurretik, Argien Mendeak, Iraultza Frantsesak eta Napoleon-ek beren egitekoa burutu zuten (1755-1814). Iraultzak Bidaxune eta Bastida itxi zituen, hebrearrak inguruetako beste judu-auzoetan banatzen zituela. Napoleonek 1808an juduentzako Departamendu-Kontsistorioak eratu nahi izan zituenean, Euskal Iparraldeko komunitate juduak Bordeleko barrutian ezarri zituen.



Baionako Sinagoga (1836-1837)

Oro har, Aro Garaikidean ere komunitatearen buru eta bihotza, Baionako Sinagoga izan da (1836-1837 urteetan eraikia: Maubec karrikako 35.enean), komunitate sinestunaren topaleku ofizial, errezo- eta biltzar-leku gisa kudeatuko dena. Espe-

ro litekeenaren arabera, bertan ospatzen dituzte Iparraldeko juduek ohiko jai erlijiosoak. Baionako Sinagoga honen historia Internet-en dago esku-eskura².

Sinagogak bere barne-eraketa du: *Hevra kaddisha* Sinagogaren gobernu eta laguntzetarako eta *Talmud Torah* gazteen hezkuntza erlijiosorako. Sinagogaren bizitza, kudeaketa eta zereginetarako Estatutuak berriro egin izan dira (1826, 1844): haur eta zahar behartsuei arreta bereziz begiratzen zitzaientzen, eta hilerriaren zaintza betebeharraren ofizialen artean zegoen, horretarako dirudunen laguntza tartean zela.

Aro garaikidean Baionako komunitate juduak beste ondoko Sinagoga nagusi bat ere izan du Miarritzen, izan ere XIX. mendeko bigarren erdi-aldian udaleku sonatua bilakatu baitzen herri miarritzarra, eta udatiar judu anitz etorri bertara (Frantziatik eta Europa osoan ere). Judu udatiar errusiarrek izan zuten kasu honetan babes-sustapen nabaria (Poliakov, Brodsky, etab.), bertako judu aberatsekin batera (Pereyre, Furtado-Heine).



Miarritzeko Sinagoga (1904)

² https://fr.wikipedia.org/wiki/Synagogue_de_Bayonne.

Ez dago apenas esan beharrik, Sinagoga hauetako erritua “portugesa” dela, eta dena ere Baionako Sinagogaren zainpean dagoela, eta premiazkoa izan denean erritu askenaziari ere lekuren bat egiten zaiola.

Joseba Intxausti

Bibliografia hautatua

Aulestia, G., 1992, “Presencia judía en Balmaseda”, in: Rodríguez de Coro 1992: 279-297.

Ayuntamiendo de Vitoria-Gasteiz, 1992, [Catálogo de la Exposición sobre] “Judíos” [de documentos de Montserrat, Biblioteca Nacional, El Escorial, Ayuntamiento de Vitoria, Archivo General de Navarra, Museo sefardí de Toledo, Colecciones particulares), in: Rodríguez de Coro 1992: 425-463.

Bénard-Oukhemanou, A., 2001, *La communauté juive de Bayonne au XIXe siècle*. Anglet: Atlantica.

Benbassa, E., 2003, *Histoire des Juifs de France de l'Antiquité à nos jours*. Paris: Éd. du Seuil.

Benjamin Tuterakoa, 1994, *Bidaien Liburua*. Iruñea: Nafarroako Gobernua. Gaztelaniaz: Magdalena Nom de Déu, J. R. (ed.), 1982, *Libro de viajes de Benjamín de Tudela*. Barcelona: Riopiedras Ediciones.

Cantera Burgos, F., 1971, “Las juderías medievales del País Vasco”, in: *Sefarad*. 31, 1971, 265-317.

Cantera Montenegro, E., 1982, “Las juderías alavesas en la baja Edad Media”, in: *La formación de Alava : 650 aniversario del Pacto de Arriaga (1332-1982)*. I, 115-134.

Cantera Montenegro, E., 1988. *Las juderías de la diócesis de Calahorra en la baja Edad Media*. Logroño: Instituto de Estudios Riojanos.

Caro Baroja, J., 19782, *Los judíos en la España Moderna y Contemporánea*. Madrid: Istmo.

Carrasco Pérez, J., 1982, “Los judíos de Viana y Laguardia (13450-1408)”, in: *Vitoria en la Edad Media. Actas del Primer Congreso de Estudios Históricos, 1981*. Vitoria-Gasteiz: Ayuntamiento.

Carrasco Pérez, J., 2002, “Juderías y Sinagogas en el reino de Navarra”, in: *Príncipe de Viana*.63, 225. zenb., 113-156.

Cierbide, R., 1992, “Las comunidades judaicas navarras en la Edad Media”, in: Rodríguez de Coro 1992: 219-246.

Díaz de Durana Ortiz de Urbina, J. R., 1992, “Judíos y cristianos en Vitoria durante la Edad Media”, in: Rodríguez de Coro 1992: 191-217.

Galé, A.-M., 2006, *Bayonne et les exilés de Juda. Histoire de la communauté juive de Bayonne*. Biarritz: Eusko Ikaskuntza. (Diska).

Gampel, B. R., 1996, *Los últimos judíos en suelo ibérico. Las juderías navarras 1479-1498*. Pamplona: Gobierno de Navarra.

García-Arenal, M.; Leroy, B., 1984, *Moros y judíos en Navarra en la baja Edad Media*. Madrid: Hiperión.

Goñi Gaztambide, J., 1959, “La matanza de judíos en Navarra en la Baja Edad Media”, in: *Hispania Sacra*, 23, 1959, 5-23.

Irizar Arabaolaza, R., 2003, *Jainkoa, herria, lurraldea. Pentateuko edo Moisesen liburuak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

Küng, H., 2004, *El judaísmo. Pasado, presente, futuro*. Madrid: Trotta.

Lacarra, J. M., 1972, *Historia política del Reino de Navarra, desde sus orígenes hasta su incorporación a Castilla*. Pamplona: Editorial Aranzadi.

Léon, H., 2016 [1893], *Histoire des Juifs de Bayonne*. Pau: Éditions Cairn.

Malka, V., 1986, *Les Juifs sépharades*. Paris: puf.

Orella Unzue, J. L., 1989, “Los judíos en las fuentes jurídicas medievales del País Vasco”, in: RIEV. 29, 1989, 261-298.

Oukhemanou, A., 2008, *Salomon, Rebecca, Numa, Chevalier et les autres...* Biarritz: Atlantica.

Pontificia Comisión Bíblica, 2001, *El pueblo judío y sus Escrituras sagradas en la Biblia cristiana*. Roma.

Rodríguez de Coro, F. (ed.), 1992, *Los judíos*. Vitoria-Gasteiz: Sancho el Sabio.

Rojo Tudela, E., 1982, “La Aljama de Vitoria”, in: *Vitoria en la Edad Media*. Vitoria-Gasteiz: Ayuntamiento. 747-760.

Ruiz de Loizaga, S., 1992, “Nuevas aportaciones sobre los judíos en los valles alaveses en la Edad Media”, in: *Sancho el Sabio*. 2. zenb., 1992, 259-268.

Scholem, G., 20083, *Conceptos básicos de judaísmo*. Madrid: Trotta.

Vatikano II.a, 1964, *Elizak kristau ez diren beste erlijioekiko duen jarrerari buruzko adierazpena*. (4. zenbakia. Euskaraz: *Vatikano II. Kontzilio Ekumenikoa*. Bilbo: Mensajero. 526-529. Beste testuen aipamenak aurkibidean: 1379-1380).